



Andoaingo Udala

Andoaingo Udala

Zk. / Nº 2026/1599

Data / Fecha 2026/06/09

Ebazpena / Resolución

ALKATEAREN EBAZPENA

Urki Dantza Taldea elkarteak 2026ko apirilaren 14an aukezturiko dirulaguntza eskaera ikusirik, 2026.urteko bere kultur jarduerak aurrera eramateko.

Hezkuntza eta kultura Teknikariaren txostena ikusirik.

Ikusirik, udal Kontuhartzaileak egindako kontrako txostena.

Ikusirik, udal Idazkariak egindako kontrako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

ERABAKI DUT

1.- Onartzea, Andoaingo Udala eta Urki Dantza Taldea elkartearen artean proposatutako lankidetzak hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen.

Xedea: 2026rako antolatutako kultur jarduerak.

Dirulaguntza: 14.834€.

Partida: 1.0500.481.338.00.13.2026 (335)

Indarraldia: 2026-01-01tik 2026-12-31ra.

2.- Hezkuntza eta kulturako jarduneko zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3.- Urki Dantza Taldea elkarteari bidaltzea hitzarmena, Hezkuntza eta kulturako jarduneko zinegotzi ahaldunak sinatuta.

4.- Onartutako dirukopuru honen %60a, hau da 8.900,40€ Urki Dantza Taldea elkarteari ordaintzea onartzea. Elkarteari utzitako udal materialaren bat egoera txarrean edo apurtuta bueltatuko balute, dirulaguntzaren bigarren zatirengatik jaso beharko luketen dirukopurutik deskontatuko da konponketa horren gastua. Iritsiko ez balitz, diferentziaren ordainketa egin beharko dute.

5.- Dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu ahal izateko, aipatu elkarteak 2027ko urtarrilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko duela 2026ko jardueren memoria, likidazioa eta zurigarri guztiak.



Andoaingo Udala

6.- Kontuan izan behar dituzte sarrera eta gastuen balantzea ondo zerrendatuta eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoarekin aurkeztuko dela, eta Urki Dantza Taldea elkarteak sinatuta egon beharko du. Izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da, eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa.

7.- Ebazpen hau Urki Dantza Taldea elkarteari eta udal Kontuhartzaitza lantsailari helaraztea.

Erabakia Udaleko idazkariaren aurrean sinatu eta bete dadin agindu dut.

Andoainen, sinaduraren datan.

IDAZKARIA

ALKATEA

